





ESTROPA 2024 DAK





saiazgetaria HOTELA


XV. MENDEKO DORRETxea

Zerbitzu orokorrak

- Doako Wifi-a.
- Ezinduentzako egokia de Igoailua.
- Kafetegia / taberna.
- Buffet gosaria.
- Biler gela, proiektzio ekipamenduz hornitua.

Aurrez aurre

- 24 orduko harrera.
- Gosaria logelan.
- Erreserbak jatetxeetan, museoak, txangoak...
- Helduentzako eta haurrentzako ohe gehigarriak eta sehaskak.
- Maskotentzako ohetxoa.



ARRAUNAREN PERIFERIATIK



OIER ROMATET

Lan hau egiteko deia jaso nuenean, zalantza txiki bat sartu zitzaidan hasieran. Nola idatziko dut nik arraunaren inguruko aldizkari bat, elkarren arteko erlazioa hutsala denean? Baina tira, horretan datza kazetaritzak ere.

Gure erlazio horretan hiru kontaktu bestetik ez ditut zenbatu.

Bat. Eskolako garaian bi aldiz joan ginen gorputz hezkuntzako jarduera gisa arraun egitera. Une hartan galdetuz gero esango nizuke oso ondo moldatu ginela, baina argazkiak ikusi berri ditut eta baliteke ezetz.

Bi. Kontxara jon nintzen behin duela urte batzuk. Egia esan behar bada, estropadak ikusi ere ez nituen egin. Momentu hartan baziren interes gehiago pizten zidaten kontuak.

Hiru. Zerbitzaria izan naiz bost urtez. Hasiera batean ez du zerikusirik horrek arraunarekin, baina badu. Batetik, arraunlariei ehunka patata tortilla pintxo eta kafesne (edalontzian) ateratakoa naiz. Bestetik, igande goizetan estropada dexente ikusi eta komentatu behar izan ditut. Estropaden funtzionamendua behintzat ikasi nuen bertan. Askok uste dute gaztetan egindako zerbitzari lanak ez direla curriculum batean jartzeko modukoak, baina pentsatzen dutena baino gauza gehiago ikasten dira bertan.

Eta horiez gain gutxi gehiago nik uste.

Informatu eta ikasi beharra izan dut elkarrizketak prestatu aurretik, eta ez dakit idatzitako guztia ongi idatzita ote dagoen ere, beraz, hala ez bada, barkatu aldeztu aurretik. Espero dudana da periferiatik etorritako begirada honek adituenoiei ere zerbaite berria erakustea. ■

4-5

Arraun hiztegia

6-12

Duela 40 urteko Telmo Deun

14-18

Zarautz Arraun Elkarte

20-24

Getariako Arraun Elkarte

26-32

Orioko Arraunketa Elkarte

34-38

Arraun egutegiak

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Testuak:

Oier Romatet

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**



ESTIBORRA

Patroiaren eskubia



BABORRA

Patroiaren ezkerre



ESTROBUA



Arrauna traineruari lotzeko balio duen soka. Sintetikoa edo kañamozkoa



HANKALEKUA

Hankak jartzeko lekua, aurrerago edo atzerago jarri daiteke

Ipu
leku
edo



TOLETEA

Estrobua eta arrauna traineruari lotzeko makiltxo, egurrezkoa zen, azken 30 urteotan plastikozkoa





TOSTA

Ipurdia jartzeko lekua, aurrerago edo atzerago jarri daiteke



PATROIA

Trainerua gidatzen duen kirolaria da, arraun baten laguntzarekin. Popan zutik doa



AURREKALARIA

Proan doan arraunlaria da, ziabogako unean arraun egiteari utzi eta patroiarri ziaboga ematen laguntzen dio beste arraun batekin



UBERA

Itsasontzi batek ur azalean lagatzen duen olaxka, estela



PROA, BRANKA

Aurrekaldea



POPA, TXOPA

Atzekaldea, patroia-aren tokia



Duela 40 urte Telmo Deun traineruko kide izan ziren sei lagun, afaritan. OIER ROMATET

DUELA LAU HAMARKADAKO KONTUAK

Aurten 40 urte dira Telmo Deunek lehenengoz Kontxako Bandera irabazi zuela. Zumaiarrek 1984ko irailaren 9an borobildu zuten arraunaren historian ahaztezina izango den denboraldia. Egun, batera jarraitzen du taldeak oraindik, geldiezinak zirenekoak gogoan.

2 0:45ak dira. Narrondo auzoko txoko batean elkartu dira Imanol Etxabe Txato, Joxeba Etxabe, Julian Beiolei, Joxe Manuel Ezama, Joxe Luis Amilibia Ardantza eta Plaxido Aranburu. Duela lau hamarkada Telmo Deun taldean elkarrekin arraunean ibilitakoak dira seiak. Urteak pasa arren, bi astean behin-edo afariak egiten ja-

rraitzen dute zenbaitek. Gaurkoa da afari horietako bat.

Mahai gainean urdaiazpikoa, antxoak eta tomateak tipularekin. Txatoren etxean tomateak laguntzarik gabe hazten omen dira; Plaxidoren arabera, Errezilen produkturen bat bota beharra izaten dute ez hondatzeko. Auskalo nongo tomateak den mahai gainean dutena.

gelateria
Arrivati
www.arrivati.eus



Juan Belmonte 2
ZUMAIÁ

Bañeru 1
ZARAUTZ



Edateko, ardo beltza batzuek, eta sagardoa besteek.

Afaria hastearekin batera, arraunean hasi zireneko garaien inguruan galdetu die kazetariak. Etxabe eta Ardantza izan ziren arraunean hasten aurrenak, 15-16 urte zituztela. Beiolei, Aranburu eta Txato urte batzuk beranduago hasi ziren, 1981ean edo. Txatok gogoan du lehenago anaiari "nora hoa eguraldi honekin?" oihukatzen ziola euripean motxila hartuta ikusten zuenean: "Eta gero neu hasi". Beiolei, berriz, zapatu gau batean engainatu omen zuten txingak utzi eta Zumaiian arraunean hasiteko. Ezama izan zen taldera sartzen azkena, 1984an taldeak Kontxako Bandera irabazi eta gerora.

Hasierako ibilerez hizketan hasi dira. Tailerean ez ziotela baimenik ematen bati, eta arraunean nola egin behar zen ere ez omen zekitela besteak. Baziren igeri egiten ez zekiten hainbat ere, eta baita, txakurren modura, justuan defendatzen zenik. "Ni bezela beste hamabi doaz" esan eta lasai joaten ziren itsasora, "ez genuen ezer pasatuko zitzaiguneren pentsatu ere egiten".

Ezer pentsatu ez, baina arriskua bazen. Gogoan dute itsaso txarra zela gaez entrenatzera atera zirenekoa. Arraunean orduak eman ondoren, ez zen Zumaiara sartzeko modurik, itsasoko sarrera ez baitzen gaur egun dena. Eta buelta erdia eman eta arraunean jarraitu behar Getariaraino.

Halako entrenamenduek gogortuko zituzten arraunlariak agian, eta hasi ziren pixkanaka garaipenak lortzen ere. Villa de Bilbao izan zen zumaiarrek lortutako lehen bandera, 1981ean. Urte horretan iritsi ziren lehenengoz Kontxako Banderan parte hartzera ere.

Kontxa aipatu bezain laster egin dute salto handik urte batzuetara bizitakora. Ez 1984an irabazitako horretara, 1983kora baizik. Badirudi aste gorabeheratsuak izan zirela garai hartakoak arraunlariarentzat. Jendeak kontatzen duenagatik, zumaiarrek ziren faboritoak urte hartako Kontxan, baina sailkapen estropadan gertatutakoak bira bat eman zion lehiari.

Mahaian daudenen arabera, urte hartan Orio ez zen Kontxara sailkatu, baina epaileek sartu egin zuten. "Bi talde utzi zituzten kanpoan hura sartzeko. Bat ez, bi". Izan ere, egingdako denbora baino minutu bat gutxiago jarri omen zioten. Horrelakorik ezeari, eta jokatu gabe jakiterik ez dagoela ondotxo dakiten arren, ziurtatzat jo dute bandera Zumaiak irabaziko zuela.

Orio sailkatu zen Kontxako Bandera jokatzeraz beste sei talderekin batera, horien artean zumaiarrek zirela, baina bertan zeuden ikusle eta arraunlari askoren esanetan, oriotarrek ez ziren zazpigarren postuan geratu sailkapen estropada, eta ez zuten sailkatzea merezi. Horren aurrean, Kaikuk, Castrok eta Zumaiak boikota egin zuten, eta ez zuten parte hartu hurrengo estropadetan, eta horrela, Oriok irabazi zuen urte hartako bandera. Horrela kontatzen dute zumaiarrek, oriotarrei galdetuz gero seguruenik bestelako kontakizuna egingo luketen arren. Oriotarren errua dela diote batzuek, Donostiako epaileena dela besteek, edota estropada antolatzen zuen Rafael Aguirre Francorena. Argi dagoena da bi herrien arteko lehia espalditik datorren kontua dela.

Bakailaoz beteriko bi kazola ekarri ditu Txatok mahaira. Bat tomate eta piperrekin, beste pil-pilean. Platera zerbitzatzearekin bate-

bqd bidaiak
viajes ~ travel

bqdbidaiak.com
[@bqd_bidaiak](https://www.instagram.com/bqd_bidaiak)
[bqdbidaiak](https://www.facebook.com/bqdbidaiak)
[BQDBidaiak](https://twitter.com/BQDBidaiak)

LEKUZ ALDATU GARA
Txomin Agirre 1 · ZUMAIA
943-84 53 96 · www.bqdbidaiak.com



ra, hurrengo urteko Kontxaz zer gogoratzen duten galdetu die kazetariak, eta "mozkorra galanta", erantzun du Ezamak. Ardantzak bazuen zer ospatu, 23 urte betetzen baitzituen egun hartan. Bandera irabazi eta Zumaiara bidean Orion gelditu ziren bazkaltzen. "Bueno, Orion ez, Ortzaitan".

Estropadan bizitakoa alde batera utzi dute, eta hasi dira berriro ere burura datozkien uneak zein urtetakoak izango ote ziren eztabaidatzen... Urte horietako batean ETBko helikopteroa gainean gogoratzen dute, eta izugarrizko haizea sortzen zuela. Lehenengotariko emankizunak izango ziren, eta kamerak ez ziren gaur bezalakoak noski. Urteen nahastea argitu ezinik, sakelakoari galdetu diote ETB zer ordutan sortu zuten, zenbat urte dituen Ibon Gatzañazpik, eta zergatik ez, euren izenak jarrita zer agertzen den. Azken horrek ez du fruitu askorik eman ordea... Hala ere, Goo-

glek ez ezagutzeak ez du esan nahi gazteak zirenean jarraitzailerik ez zutenik. Entrenamenduetan atzetik ibiltzen ziren jarraitzaileak ere bazituztela esan dute. Itsasora irteten zirenean batzuk itxaroten geratzen omen ziren herrian, eta ba omen zen amona bat egunero zain egoten zena, gizon bat atzetik izaten zutena. Garai hartan gauzak beste modu batera bizitzen zirela ondorioztatu dute.

Herriak taldearengan jartzen zuen arreta erakusten du ere Joxeba Aristirekin bizitakoak. Patroia zen Aristi, eta zenbait tirabira izan zituzten estropada batzuetan. Luxia entrenatzaileak patroia aldatzea erabaki zuen orduan, Aristi kendu eta Gorria jartzea. Oriotar batek zumaiar bat ordezkatzek ez zuen harrera oso ona izan, ordea, herrian, eta kontatu dute, protesta gisa, pintaketak azaldu zirela kaleko hormetan.

Herritarren babes hori une oro sentitzen zu-

IZAN ZAITEZ

papera

digitala

babeslea



ten arraunlariak. "Herri guztia zain egoten zen, jaiero-jaiero", esan du Txatok. Irabazten zuten bandera bakoitzarekin ongiatorria egiten zieten herritarrek. Garrantzitsuenak udaletxean ospatzen zituzten, eta kalean besteak. Txar-rangaren musika eta guzti izaten zuten. Eta ez Zumaian bakarrik, handik kanpo ere txaranga beraiekin joaten zen, baita Galiziara ere.

Izan ere, ez ziren gutxi izan urte haietan zumaiarrek irabazi zituzten banderak, eta 1984an, jokaturako denak irabazi zituzten. "Hori beste inork ez du egin", azpimarratu du Etxabek. Urte hartan jokaturako 19 banderak irabazi zituzten, eta ez hori bakarrik, jokaturako 30 estropadak ere eurek irabazi zituzten. "Horretarako ondo ibiltzea ez da nahikoa, zortea ere ikaragarria behar da", erantsi du anaiak. Zenbakiek argi erakusten dute geldiezinak izan zirela.

Nahiko bakailao janda, Etxabe anaiak jaso

dituzte kazolak, Ezamak medikuak esanda-koak errepikatzen dituen bitartean: "Niri esaten dit gutxi janda joan behar dela ohera". Minutu gutxira, saiheski tontor bat ekarri dute sukaldetik mahaira.

Arraunean aritu ziren garaian ere ez zuten arazo handirik izaten jan-edanarekin. Oraingo arraunlariak neurri zorrotzak bete behar izaten dituzte, baina lehen ez zen halakorik. Aholkuren batzuk jasotzen zituzten, baina ezer gutxi.

Entrenamenduak amaitzean Etxeonara joaten ziren arraunlariak, 22:00 aldera. Han ardoa gaseosarekin hartzen zuten, hiru bat basokada, eta laguntzeko, almendrak. Indarrak berreskuratutakoan, etxera joan eta afaldu. Noizbehinka afariak ere egiten zituzten: "Mila pezetakoak, txapela kentzeko modukoak". Badute zer eskertu Etxeonako lñakiri. Castrotik bueltan etorri ziren batekoa oroitu dute. Goizaldera iritsi ziren, 01:00, eta errepide erdira aterata omen zegoen lñaki, autobusa gelditu eta taldeari afaltzen emateko.

Izan zen katuren bat jatea tokatu zitzaionik ere. Aita Mari soziedadean gertatu zen hura. Bertan bueltaka ibiltzen ziren lau bat katu harrrapatu zituen taldeko sukaldariak. Usainari soilik kasu eginda untxia zirudiela diote, baina jakinaren ganean zeudenak ez omen ziren gai izan probatu ere egiteko. Besteek osorik jan zuten.

Giro ederrean ari dira garai hartako gorabeherak gogora ekartzen, saiheski hezurak garbi-garbi uzten dituzten bitartean, eta kazetariak aukera probestu du 84an, Kontxako bandera lehendabizikoz irabazi zutenean, sentitu zutenaz berriz galdetzeko. "Emozio ederra, ederra izan zen, giro bikaina sortu zen",

ABANTAILAK:

- Papereko argitalpenak etxean, Gukakide digitalak izan ezik.
- Argitalpenak digitalki eskuragarri.
- Guka aplikazioan bazkideentzako txokoa
- Zozketak eta lehiaketak.
- Ekitaldiak.
- Deskontu sarea.
- Argazkiak eta bideoak deskargatzeko aukera.
- Komunikazio eta marketin zerbitzuetan %10eko deskontua, Gukakide babesleak.
- Aterpen zure saltokia eta eskaintza bereziak, Gukakide babeslea bazara.

GUKAkide
Gukaren bazkide-tza formula berria da.



esan du batek. "Kontxa beti izaten da berezia, baina aurreko urtean pasatakotik, 84ka are be-reziagoa izan zen", albotik beste batek. Munduko txapelketa batekin edo txirrindularitzan Frantziako Tourra korritzearekin konparatu dute. Batzuentzat jokatzeko estropadarik ederrrena da Kontxa, baina ez denentzat, hobeak badira iritzi diote. Eta jarraitu dute estropaden arteko konparazioak egiten.

Konparaketa horietan inoiz ahaztuko ez duten estropada bat atera dute mahai gainera, behin bakarrik egin den bat, Getariatik Donostiarakoa. Ordu eta sei minutuko iraupena izan zuen, eta arraunlariak ur botila bana jaso zuten izerditan botatakoa berreskuratzen joateko. Deshidratatuta amaitu zuen Txatok, helmugara iritsita ere inkontzienteki arraunean jarraitzen zuela esan du. "Nik ez nuen erateko beharrik sentitzen", argudiatu du. "Orain ere ez, baina ari haiz", erantzun dio Beioleik, eskuan duen ardo basoari begira. Dirudienek beste taldekide batek ere deshidratatuta bukatu zuen estropada, Debako batek, eta ospitalean bukatu zuen hark.

Sekulakoak egindakoak dira mahai bueltan daudenak. Aldi batean, hiru estropada irabazi zituzten 24 ordutan, eta beste batean, bi bandera egun berdinean. Arropaz aldatu ere ez zirela egin esan dute. Bat bukatu, autobusean sartu, eta bestearen bila. Garai hartan normaltzat omen zuten horrela ibiltzea. "Konfiantza handia genuen taldea eta ez genituen gauzak askorik pentsatzen".

Erronka horiei guztiei aurre egiteko, etxe-koan laguntza ezinbestekoa izan zutela esan dute. Garai hartan, batez ere ama izaten zuten atzetik. Etxera gosez iristean afaria mahaian

izaten zuten, blai egindako arropa guztia hurrengo egunerako prest izaten zuten... Eta azken hori ez zen lan makala izango, egungo lehorgailuaren lanak suak eta toalla batzuk egiten zituztenean.

Mahaiko tresnak jaso dituzte, atzetik datorrenari lekua egiteko. Etxean egindako mamia, txokolatzeko palmeraz eta bestelakoz beteriko kutxa handi bat, eta intxaurrak. Sei intxaurren jaten ditu egunero Plaxidok. Baina beste zerbait ere ekarri du Txatok postrearekin batera: albumak. "1983" jartzen dio bati alde batean, eta "1984" jartzen dio besteari. Urte horietako egunkari zatiak daude barruan, txukun-txukun moztuta eta gordeta.

Aurrenengoak ireki eta begira hasi dira. Argazki asko ez dira guztiz argiak. Pertsonen siluetak ikusten dira, baina ez da erraza ezberdintzea nor den bakoitza. Beste batzuetan, aldiz, argi ikusten dira aurpegiak.

1983koa utzi, eta 1984koa ikusten hasi dira. Urte honetan bildutako albiste guztiak ikustearekin bakarrik argi geratzen da Telmo Deuneko mutilek garai oso oparoa izan zutela. Lehenengo albisteek taldearen garaipenen berri ematen dute, eta, pixkana, nabari da kazetarien lerroburuetan denak jabetzen zirela izugarria zela egiten ari zirena, geldiezinak zirela alegia. Irudimena erabiltzen hasi behar izan zuten kazetariak, astero "Telmo Deunek irabazi du berriro ere estropada" jartzea saihestearren.

Bizkaiko estropadek izaten zituzten sariez gogoratu dira. Hasteko, Gipuzkoan normalean bi estropadetara izaten omen ziren lehiak, sari bakarrarekin, eta Bizkaian, ahalegin erdiarekin, estropada bakarrarekin, saria lortzen zu-

Inmobiliaria  ORIO

ERAIKUNTZA

SUSTAPENA

KUDEAKETA

Nafarroa Kalea, 13 - Zarautz

943 89 44 33

www.inmobiliariaorio.com



Muniosoro erretegia

Euskal sukaldaritza



Eguneko menua Astelehenetik ostiralera 12,50 eurotan
Sukaldaritza tradizionala eta egur ikatz parrila

Muniosoro 54, Oikia - ZUMAIA
943-14 78 91

tela. Santoñatik Seat Panda bat ekarri zuten adibidez, bi urtez jarraian.

Kontxako Banderarekin konparazioak egi-tera igaro dira. Ezamak egin du kalkulua: kopuruak pezetetatik eurotara pasatuta, 24.000 euro jasotzen zituen irabazleak Kontxan, baina hiru estropada egin behar; beraz, 8.000 euro estropada bakoitzeko. Bizkaian, aldiz, estropada bakarra eginda jasotzen omen zituzten tamaina horretako sariak.

Albumean aurrera, zumaiarrek irabazi zuten Kontxaren inguruko albisteak ageri dira, eta kazetariak hirugarren saiakera egin du beste bitan ihes egin dion elkarrizketa berhartzeko, baina alferrik, euren buruari garrantzia kendu eta Kontxa berari garrantzia eman nahi izan diote: "Kontxa beti izan da Kontxa, garai baten agian gehiago". Garai batean, Donostian etxe bat erosteko moduko sariak ematen omen zituzten, Franco ere bertaratzen omen zen, eta han egindako apusturen baten erruz baserria galdutakoak ere ba omen dira.

Sariekin jarraituz, zumaiarrek ez dakite non egongo ote den eurek urte hartan irabazi zuten Kontxako bandera hura. Lehen udaletxean gordetzen zituzten bandera guztiak, baina han obretan hasi zirenean lekuz aldatu zituztela esan dute, eta ez zirela oso txukunak atera gordeta egon ziren lokaletik; hezetasunez eta lizunez beteta amaitu zuten. "Garbitu zituzten gerora, baina itxuraz orain ez dira duela 40 urte ziren berak". Etxaberi Kontxakoak baino pena handiagoa ematen dio bateletan Loiolan atera zutenak, hura oso bandera ederra zela dio. Eta Kontxako beste bandera bat ere izango da horien artean, 1987an ekarri zutena.

Orain 20 urte balituzte berriz arraunean hasiko ote liratekeen galdetu die kazetariak, eta Ezamak erantzuna: "Kuadrilla bera izanda, bai". Eta beste bost kideek arrazoia eman diote hari. Argi dute egin zuten lagunarteagatik etorri zela beste guztia. Gogoan dute eztabaidaren bat edo beste izaten zutela, baina haserrik ez. Egunero egoten ziren elkarrekin, eta ordu asko gainera: entrenamenduak, estropadak, hamaiketakoak eta afariak... Etxabek azpimarratu duen moduan, "milisegundo batzuegatik galdutako estropadak han gertzen dira azkenean, baina taldea da gaur egun arte bizirik iraun duena".

Oraindik ere urtero bitan elkartzen dira gehienak. Martxoan arkume jana egiten dute, eta Kontxako bigarren larunbatean bazkaria, igandean lasai ibiltzeko. Eta horiez gain, sei bat lagun hamabostero elkartzen dira afaltzeko.

00:30ak jota bukatu dute gaurkoa, arraunean ez ezik, hizketan ere geldiezinak direlako. Arraunlari garaiko ibilerez gain, Everestera igotzeko ilarak, Sanjuandegiko festak, erromatarren garaiko arkitektura eta AEBtako politika ere hizpide izan dituzte, eta anekdotak eta istorioak bata bestearen atzetik kontatu.

Gauza handiak egin zituen talde bateko kideak izan ziren seirak. 84an Kontxa eta jokatutako beste bandera guztiak irabazi zituzten, beste inork egin ez duena; estropada gehiago ere irabazi zituzten, eta beste batzuk galdu ere bai; ospakizun eta festa asko egin zuten elkarrekin, hamaiketako eta afari ederrak ere bai; baina garrantzitsuena, lau hamarkada geroago bizirik eta indartsu jarraitzen duen taldea sortu zuten. ■





Ane Roteta

fisioterapia eta osteopatia

- Fisioterapia
- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Errehabilitazioa
- Puntzio Lehorra
- Neuromodulazioa
- Neuro-ardatza
- EPI
- Indiba
- Ekografia

MUGIMENDUAK
bizitza dakar

☎ +34 618 84 52 20

✉ ane@fisioterapiaroteta.com

🌐 fisioterapiaroteta.com

📍 Mitxelena Kalea 67, Zarautz

📷 [a.roteta_fisioosteopatia](https://www.instagram.com/a.roteta_fisioosteopatia)





"AURRERAPUSOA EMAN BEHARRA ZEGOEN, ETA NIK EMAN DUT"

NAGORE ARRUTI
ZAE-KO ZUZENDARIA

ANDATZA
KAFETEGIA
OKINDEGIA

Bereziki
GOSARI ETA ASKARIAK
PLAZA ITURRILUN 3, ZARAUTZ
943-83 29 66

Zarautz Arraun Elkarteak zuzendaritza aldaketa izango du aurten. Hamar urtean Jon Artola izan da zuzendari, eta orain Nagore Arrutik hartu du haren lekukoa. Arraunlari ohia izateaz gain, azken lau urteotan elkarteko batzordeko kidea izan da.

Ezagutzen ez zaituenarentzat, nor da Nagore Arruti?

Zarautzen jende asko izango da ezagutzen ez nauena, izatez ez bainaiz zarautzitarra, usurbildarra baizik. Bikotekidea dut zarautzitarra, arraunlaria, eta urte asko egin ditu Zarautz Arraun Elkartean. Klubarekin nire lotura, aldiz, duela urte batzuk hasi zen, ZAEk Emakumea Arraunlari ekimena hasi zuenean. Ni orduan futbolearen ibiltzen nintzen Usurbilen, baina lesio bat eduki nuen belaunean. Errekuperatzean, arrauna probatu nahi nuen, eta halaxe egin nuen. Futbola utzi nuen, eta orduko Zarautz-Getaria taldean hasi nintzen arraunean. Bi urte egin nituen, proiektua bukatu zen arte. Gero, Donostiarra taldea sortu zuten, hara joan nintzen, eta hiru urte egin nituen bertan. Hurrengo pausoa arrauna uz-

tea izan zen. Zarauzko gizonen lehen taldea Eusko Label Ligara igo zen, eta bikotea hango taldekidea zenez, laguntzeko prest nengoela esan nien. Orduan hasi nintzen batzordean, eta hango kide izan naiz azken lau urteotan.

Zein izan da zuzendaritza aldaketa egiteko arrazoia?

Arrazoi nagusia izan da orain arte zuzendari zegoen Jon Artolak eta idazkari zegoen Joseba Seguroiak hainbat urte eta gero nekea ere sumatzen zutela, eta ardura horiek alde batera utzi nahi zituztela adierazi zuten. Beti ere laguntzeko prest, baina karga handienak alde batera utzita. Lantaldeko gainontzeko kide gehienek jarraitzeko asmoa zutenez, iaz esan zuten uztekoak zirela. Norbait izendatu beharra zegoen zuzendari, baina inor ez da aurkeztu;

aurrerapausoa eman beharra zegoen, eta nik eman dut.

Elkartearen buru jartzea tokatzen zaizu orain orduan. Zein puntutan aurkitzen da Zarautz Arraun Elkarte?

Gizonen seniorren traineru bat dugu, emakume seniorren beste bat, eta beheko mailetan nahi baino harrobi txikiagoa dugu. Egia da daukagun hori ona dela. Adibidez, kadete mailako neskek Espainiako Txapelketan bigarren postua lortu dute. Lana oso ondo egiten ari gara, baina gustatuko litzaiguke Zarautzen arrauna gehiago sustatzea.

Azken urteotan herrian arrauna gehiago ikustarazteko ahaleginetan ari zarete. Zer moduz doa lana?

Zaila da. Zarautzen kirol desberdin asko egiteko aukera dago, klub guztiok nahi dugu



BATELA
prest

**Etxeko platerak, amonarenak, zuretzat beti prest,
Batela prest-en**

AUPA ENBATA!!

Geltoki bidea, 7 Zarautz

T 943-84 01 40 M 673 38 18 40 @ batelaprest@gmail.com

harrobi sendo bat izatea eta haurrak gure klubetara etortzea, baina ez da erraza.

Kanpotik begiratuta, arraunlariak eta entrenatzaileak ikusten dira gehien, baina jakina da horien guztien atzean lan handia egiten duen jendea dagoela. Zeintzuk dira arraun elkarte baten batzordeak egin behar izaten dituen lanak?

Egiteko asko izaten ditu, eta egiteko oso desberdinak, gainera. Estropadetak baimenak eskatu behar izaten ditu, arraunlariarentzat arropak eskatu, trainerua prestatu behar izaten du, edozein konponketa egitera bidali, babesleen pegatinak behar bezala jarrita daudela ziurtatu, gainontzeko material guztia egoki dagoela bermatu eta abar. Era askotako lanak; batzuk izapideak izaten dira, eta beste batzuk huskeria ematen duten arren denbora eskatzen duten lanak.

Azken urteotan emakumeen zein gizonen taldeak ari dira lehiatzen Zarautz Arraun Elkarteara, baina hori ez da beti horrela izan. Etorkizunera begira, bide horretatik jarraitze-ko asmoa al duzue?

Konplikatu da. Alde batetik, harrobia badator atzetik, baina arraunak konpromiso handia eskatzen du, kirol guztiek bezala, noski. Jubenil edo senior mailetara pasatzean, klubeko arraunlarien eguneroko aldatu egiten da. Institutua, unibertsitatea, asteburuak... Batzuek nahiago izaten dute utzi. Momentua hauetan, nesken lehen taldearekin ondo gabiltzala. Batzuk utzi zuten, baina beste batzuk hasi ere egin dira. Atzetik badator, eta lana egingo dugu harrobi hori sustatzeko eta etenik ez egoteko.

Harrobia aipatu dugunez, esan, norbaitek arraunean

—
"Gustatuko litzaiguke Zarautzen arrauna gehiago sustatzea"

"Huskeria ematen duten arren denbora eskatzen duten lanak dira"

"Lana egingo dugu harrobia sustatzeko eta etenik ez egoteko"

hasi edo probatu nahiko balu, aurtengo udan ere eskainiko dugula horretarako aukera. Uztailean izango da hori, goizetan. Horretarako, klubera deitu edo Whatsapp mezua bidali beharko dute interesa dutenek, eta arrauna probatzeko aukera izango dute. Gure telefono zenbakia 688 64 93 07 da.

Zer aurreikuspen dituzue aurtengo denboraldirako?

Aurreikuspenak egitea oso zaila izaten da. Denboraldiaurreko estropadetan ez dakizu beste traineruek nola jokatu duten, denborak ikus ditzakezu, baina ez dakizu zer asmorekin joan den entrenatzaile bakoitza estropada horietara: entrenamendu modura, dena ematera... Eta gu ere berdin. Egia da mutilak ondo dabilzala, eta aurreikuspena ez da txarra; neskak ere iaiztik ondo dabilzala, jendeak jarraitu egin du eta seinale ona da hori; baina ikusi egin behar. Batzuetan, behetik gorantz joaten zara, neskeak iaiz egin zuten bezala: ondo hasi, gorantz egin eta oso ondo bukatu zuten, lau ikurrina lortuta. Sekula ez dago jakiterik. ■

BORDA

ARDOAK

Aupa Enbata!



Foruen Kalea, 12 · Zarautz · 943-13 42 05
 info@bordaardoak.eus · www.bordaardoak.eus



ZARAUZKO BANDEREN ATZEKO LANAK

1976tik, urtero-urtero abuztuan jokatu izan dute Zarauzko Ikurrina estropada. Bi jardunaldi izaten ditu gaur egun, eta gizonak zein emakumeak lehiatzen dira bertan. Bi saioetako denborak batu, eta azkarrena izan den traineruak irabazten du urte horretako bandera preziatua. Urtez urte bandera horiek zein herritara joan diren jakiteko hemerotekan begiratu bat ematea aski da; baina inork ba ote daki nork egiten dituen bandera horiek?

Zarauzko Ikurrinaren irabazleek saritzat jasotzen dituzten banderak Elgoibarraren egin izan dituzte 45 urtean. Azken bi urteotan, Debabarrenean bai, baina ez dituzte lehengo sortzaileek egin. Aurten, iaz bezala, Elgoibartik eta Soraluzetik ekarriko dituzte Zarautzera emakumeen zein gizonen garaipenaren ikur izango diren banderak. Hain zuzen ere, Karkizano eta Orratz enpresek elkarlanean egingo dituzte, nork bere partea dotore gauzatuta.

Ainhoa Uriguen (Elgoibar, 1995) da Karkizano mertzeria dendaren burua, bere ama Marian Lopez (Bermeo, 1960) bidelagun duela. Han hasten dute Zarauzko estropadan jokatzen diren bi banderak egiteko prozesua.

Oihal gorria oinarrian hartu, eta hari beste koloretako zati batzuk josten dizkiote, lau ikurrina egin arte; bi bandera bakoitzarentzat, alde banatan. Bandera bakoitzak 250 zentimetro x 150 zentimetro neurtzen ditu. Egun bazuetakoa lana izaten dute bertan, eta jarraian,



Zarauzko banderak josten dituzten kideak, lanean. UTZITAKOEA ETA OIER ROMATET







SUKALDEAK

Hegoalde 8 (Eroski ondoan)
943-83 52 57



ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

San Frantzisko 3
943-83 49 60

ZARAUTZ

www.inakisukaldeak.com · inakisukaldeak@gmail.com · 






OIER ROMATET

bandera bakoitzaren alde bat bordatzera eramaten dute.

Cristina Albisua (Soraluze, 1973) da bordatuaz arduratzen dena Orratz markaren izenpean. 11 urte daramatza artisau lanetan, baina hark ere ez du beti bakarrik jarduten. Zenbait lan aurrera ateratzeko beharrezkoak izaten dira lau esku, eta horietarako, Rafa Layza (Callao, Peru, 1972) bere senarraren laguntza izaten du.

Hasteko, banderak izango duen bordatuaren diseinua egin behar izaten dute ordenagailuko programa batean. Elementu bakoitzak izango duen tamaina eta kokapenez gain, beste hainbat parametro izaten kudeatu behar izaten dituzte han: geruzak, puntadak, norabidea, koloreak... Astebeteko lana izaten du horrek lehenengo aldian.

Gero, diseinua makinara pasatu eta ban-

derak bordatu behar izaten dituzte. Banderak dituen dimentsioak kontuan izanda, lana hainbat zatitan egin behar izaten dute, eta lau esku ezinbestekoak dira lan horretarako. Banderaren erdian kokatzen den armarriak, esaterako, 9.000 puntada behar izaten ditu, 37 zentimetro x 25 zentimetroko tamaina duen azalera batean. Hilabeteko lana izaten da gutxi gorabehera bi banderak bordatzea.


Prozesua amaitzeko, berriro Karkizanora itzuli behar izaten dituzte bordatutako ikurrinak. Han, ikurrinaren beste aldearekin josten dituzte horiek, eta horrez gain, makilari lotzeko euskailuak gehitzen dizkiete.

Denbora eta ahalegina eskatzen du, beraz, banderak egiteak. Aurtengoak egiteko prozesua martxan da dagoeneko, eta laster prest izango dituzte 2024ko Zarauzko ikurrinak. ■



UTZITAKOAK





ITXAS-LUR

SINCE 1999

by Pascu Expósito

Santuturri plaza, 3 - Zarautz
943-89 01 38 - 688 71 75 36



itxaslur.eus



Getariako zaleak taldeak animatzen, Donostiako arranplan. ONINTZA LETE ARRIETA

ESPERANTZAREN URTE OPAROAK

Olatuaren apar gainean arraunean dabil Esperantza trainerua azken urteotan, herria ilusioz eta ospakizunetarako motiboz ziprizzinduz. Getariako gizonak emaitza oso onak lortzen ari dira azken denboraldietan, eta horrek datozen urteotarako indarrez bete ditu arraunlariak.

Sei urte atzera egin beharra dago Getariako Arraun Elkarteko gizonen lehen taldearen hastapenetara joateko. "Hamahiru bat arraunlari elkartu ginen taldea ateratzeko asmotan", azaldu du Ion Larrañaga (Getaria, 1979) taldeko entrenatzaileak. Esperantza trainerua uretan ikusi nahi zu-

ten berriro, eta taldearen erabakiz, Larrañagak hartu zuen taldearen ardura "ia derrigorrean".

Herrikoak ziren hasieran elkartu ziren arraunlari guztiak, eta horien artean aurkitzen zen Unax Eizagirre (Getaria, 1998) ere, taldeko patroia. "Getariarra izanda hemen hasi nintzen kadete mailan", adierazi du egindako



ibilbidea gogora ekartzean. Senior kategorian zazpigarren urtea izango du aurten Eizagirrek, eta ondo gogoratzen du Esperantza bizitzen ari den sasoi berriaren hasiera: "Aurreko entrenatzailearekin nengoen eta proiektu aldaketa bat egon zen, taldea erabat irauli zen".

Taldea osatzeko ez ziren nahikok arraunlari haiek, eta inguruko herrietatik jende gehiago

ekarri beharra ikusi zuten. Fitxatu zutenetako bat Mattin Etxaniz (Zumaia, 2001) izan zen. Aste Santu aldera iritsi zen zumaiarra Getariara: "Zumaian bazterketak egin zirenean, kanporatua izan nintzen". Getariakoa "aukeratzen" ikusi zuen Etxanizek, eta ez du baietz esanaren damurik, "asko ikasi" duela esan du.

Urte "berezia" izan zen hasierako hura, eta denek dute gogoan. "Denboraldi hasieran estropada gutxi izaten dira eta atsedean hartzeko aukera gehiago izaten dute arraunlariek", argitu du Larrañagak. Hala ere, talde bateratu bat osatzea zuten erronka, are gehiago zeinen "talde gaztea" zuten ikusita, adierazi du entrenatzaileak prozesua taldekide horien ezaugarrietara egokitu zuen Larrañagak, gaur egungoen aldean bestelako entrenamendu saioak eginda: "Teknikoki antzekoak saioak ziren, baina fisikoki ahalegin txikiagoa eskatzen zuten".

Nork bere usteak izango zituen taldearekiko. Eizagirrek, adibidez, onartu du berarentzat ez zirudiela oso talde indartsua, eta beretzat helburua "mailari eustea" zela. Etxanizek ikuspuntu baikorragoa zuen, eta taldea "aurreko postuetan" ibiltzeko esperantzak zituen. Usteak uste, berehala hasi zen entrenatzailearen zein arraunlarien lana fruituak ematen. "Izugarritzko denboraldia atera zen eta hiru bandera-rekin amaitu genuen", gehitu du patroiak.

Taldeak lehenengo denboraldi hartan lortutako emaitzak eta gero, "gauzak oso naturalki



Merkatarien, ostalarien, gremioen eta profesionalen atari digitala

aterpe

Egin sarera salto **GUKA** webguneen erakusleiho digitalarekin

ONLINE IKUSI, ESKAERA EGIN... ETA KALEAN EROSI!

ESKATU INFORMAZIOA: aterpe@gukazerbitzuak.eus





Unax Larrañaga eta Mattin Etxaniz. URTZI OTEIZA

"Guk ere sinistu egin genuen, motibatu egin ginen, eta emaitza onak lortu genituen"

"Arrauna uzten dudan egunean baloratuko dut benetan zer lortu genuen urte horretan"

etorri ziren", Larrañagaren ustetan, eta bide berean jarraitu zuten. "Gero pandemia etorri zen, jarraian beste pare bat garaipen lortu genituen eta aurreko hiru postuetan gelditu ginen", jarraitu du entrenatzaileak.

Etap berria

2021eko denboraldia izan zen mugarrira Esperantzarentzat. Andoni Galarraga Getariako arraunlari ohiaren omenez egindako estropadan garaipena lortu zuten, eta hortik "gauzak goraka joan" zirela azaldu du Larrañagak: "Guk ere sinistu egin genuen, motibatu egin ginen, eta emaitza onak lortu genituen".

Denboraldian zehar egindako lanak emaitzak eman zituen, eta Esperantzako mutilek TKE Ligara edo Eusko Label Ligara igotzea lortu zuten. Eizagirrek ilusioz gogoratzen du Getariak lehenengoz liga horretarako sailkapena lortu zueneko. "Nik ikusiak nituen getariarrak hiru aldiz KAE-1 liga irabazten, eta hiruretan huts egin zuten *play off*-etan. Guk asmatzea amets bat betetzea izan zen", oroitu du patrioiak.

Mailaz igo ondoren, taldeak zituen helburuak bi hitzetan laburtu ditu Etxanizek: "Mailari eutsi eta disfrutatu". Argi dago Esperantzak aurrean zuen erronka ez zela makala, eta paladaz palasa joan beharra zutela. "Azkeneko postua saihestu zuzenean ez jaisteko, eta azkenaurrekoa ere bai, *play-off*-a jokatu beharrik ez izateko", hori zen taldearen nahia, Eizagirren arabera.

Hala ere, lortutako emaitzak oso urrun egon ziren taldeak buruan zituen kezketatik. "Gure mailak berez azken postu horietan egotea beharko zuen izan", azaldu du Larrañagak,



baina "espero ez" arren, denboraldia bigarren postuan amaitzea lortu zuten. "Denboraldiaurrean txalupa azkar zihoala ikusten genuen guk, baina ez duzu inondik inora pentsatzen igo zaren urtean halako emaitzak etorriko direnik", gehitu du Etxanizek. "Amestu" zuten hura lortzen ari ziren.

Denboraldiari amaiera bikaina

Kontxako Banderara sailkatzea zen hurrengo pausoa. Egindako denboraldia ikusi ondoren, dena "normal joanda, barruan" ikusten zuten taldea arraunlariek, nahiz eta sailkapena lortu arte ezin lasai egon. "Egun horretan asmatu beharra zegoen, presio hori ez dut sekula igarri", aitortu du Eizagirrek. Larrañagarentzat ere berezia izango zen sailkatzea lortzea, arraunlari moduan egindako ibilbideari amaiera borobila emateko modua: "Nire ilusioa zen hortxe bukatzea, Getaria Kontxan sartzen, buruan hori nuen".

Sailkapena lortu zuten eta baita Ohorezko Txandan jokatzeko ere, nahiz eta amaieran bosgarren. postuan gelditu. Emaitza bat edo beste izan, ordea, arraunlariarentzat "urte guztiko lana ospatzeko eta disfrutatzeko" egunak izan ziren: "Faktore askok baldintzatzen dute estropada hori, eta esango nuke urte guztiko emaitzarekin geratu beharra dagoela".

"Inoiz ez dut ahaztuko irlara sartzen ari gine-lan minutu bat falta zela esan zuela Eizagirrek. Bizitzan pasatu dudan minuturik luzeena izan zen", gogoratu du Etxanizek irribarre batekin. Getariak 50 urte zeramatzan Kontxara sailkatu gabe. Eizagirre: "Guk ez dugu sekula ikusi Getaria Kontxan sartzen, gu iritsi eta dena borobil irten zen". Izan ere, lortutakoa "sinistu ezi-

nik" jarraitzen du Etxanizek oraindik: "Arrauna uzten dudan egunean baloratuko dut benetan zer lortu genuen urte horretan".

2023ko denboraldian ere lanean jarraitu zuen Esperantzak eta hilabete horietan lortutakoa ez zen urrun egon aurreko denboraldian egindakoarekiko. Eusko Label Ligan zazpigarren Postuan amaitu zuten denboraldia, eta bigarren urtez jarraian Kontxako Banderara sailkatu ziren.

Herri baten olatuan

Ibilbide oparo honetan, ez dira bakarrik egon, ordea, Esperantzako trainerua osatzen dutenak; herriaren indarra eurekin izan dute arraunkada bakoitzean. "Gehiengoak getariarrak izanik, kuadrilla bakoitzak arraunlari bat du tartean, eta gazte pila bat mugitu da. Getariako helduak ere autobusak hartu dituzte Donostiara joateko", azaldu du Eizagirrek herri-herri jaso duten babesaren azpimarratuz.

Getarian arraunarekiko sortu den afizioaren ideia bat egiteko ondorengo kontakatu du zumaia: "Xabierrek –Xabier Goikoetxea, elkarteko lehendakariagatik– esaten du ez dakit zenbat kamiseta atera zituztela saltzeko, astakeria bat zela, eta hala ere berriro eskatu behar izan zituztela denak saldu zirelako". Larrañagak ere "izugarriko sorpresa" jaso du herriak emandako babesarekin: "Ikusi da Esperantzak herrian badituela zaleak".

Helburu berdinak

Egun, 2024-2025 denboraldiaren atarian, arraunlariak prest daude aurtengoari ere aurre egiteko, ilusioz eta indarrez beteta. "Beti pauso bat aurrera eman nahi izaten dugu, maila





Esperantzako arraunlarriak borobilean, entrenatzailea erdian dutela. ONINTZA LETE ARRIETA

bat igo, arraunean hobeto egin", argitu du patriak. Estropadaz estropada daukaten "onena eman" nahi dutela dio Eizagirrek: "Guri irabazi behar badigute, hobeak izan beharko dute, ez dadila izan guk gure mailarik onena eman ez dugulako".

Hala ere, taldekide guztiek argi dute Esperantzak duen helburu nagusia TKE Ligan mantentzea dela. "Azken bi postu horietatik libratzea, nik uste emaitza aldetik beti hori izaten dela gure helburua, gero hortik aurrera...", azpimarratu du Larrañagak. Izan ere,

aurtengo denboraldia lehiatua izango dela aurreikusten du Etxanizek: "Uste dut aurten segundo gutxitan bost edo sei txalupa egongo direla, eta espero dugu horien artean ibiltzea".

Denboraldiak dakarrena ikustea besterik ez da geratzen. Hilabete mugituak datoz arraunlariarentzat eta gertutik jarraitzen dituzten zaileentzat. Esperantza indartsu dago eta azken urteotan egindako bidea jarraitzeko esperantza du, baina Etxanizek esan bezala "denborak erakutsiko du zein den gure tokia". ■

talleres


AiA



Aia Tailerrak "beti arraunarekin"

Bizkaia kalea, 69 · ZARAUTZ · 943-83 46 18 · 639 51 80 24 · electricidadai@gmail.com

BERAZADI BERRI ERRETEGIA



Berazadi Berri Erretegian, zerbitzaria behar da
Interesatuak idatzi whatsapp zenbakira: **600 22 00 49**

Berazadi Berri 723 Talaimendi, Zarautz
943-83 34 94 | 667 75 02 13
info@berazadiberri.eus | **www.berazadiberri.eus**

"AULKI MUGIKORRAK EZ DAUKA TRAINERUAK DUEN IKUSGARRITASUNA"

Arraunari buruzko elkarrizketa gehienetan, Orioko klubaz hitz egitea ia saihetsezina da. Hizketaldi horiek traineruaren bueltakoak izan ohi dira normalean, nahiz eta ez den hori Orioko elkartearen lantzen duten modalitate bakarra. Bada beste bat elkartearen hastapenetatik praktikatzen dutena: aulki mugikorra. Ekain Zubizarreta Orioko klubeko kideak eman ditu azalpenak.



ANDER BASURTO



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Aupa Orio!

Herriko Enparantza 4, ORIO
Tel.: 943-83 00 44

Ezagutzen ez duenari nola azalduko zenioke zertan datzan aulki mugikorren modalitatea?

Ez da hemen garatutako modalitatea, kanpotik etorritakoa baizik, mundu osoan zabaldua dagoena, Olinpiar Jokoetan egiten den arraunketa mota. Berezitasun handiena du berez ez zela garatu itsasoan egiteko; orduan, ontziak askoz ere finagoak eta baxuagoak izaten dira hemengo arrantzontziekin? konparatuta. Bestetik, hemengoek tosta (esertzeko tokia) eta hanka tokia finkoak dituzten moduan, aulki mugikorretan tosta mugitu egiten da, eta beraz, lana gorputzeko beste atal batzuekin egin behar izaten da. Hankek askoz garrantzia handiagoa dute eta arraunketa teknika desberdina da.

Zenbat laguneko ontzietan praktikatzen da aulki mugikorra?

Bakarka egin daiteke, bi arraunekin egin daitekeelako. Binaka ere bai, launaka edo zortzi-naka.

Orioko Arraunketa Elkarteak 1965an sortu zuten, eta klubean ordutik landu izan da aulki mugikorren arraunketa, ezta?

Bai. Esan beharra dago lehenago aulki finkoko arraunketa egiten zela hemengo kostaldean, batel, traineru edo trainerilletan egiten den arraunketa hain zuzen. Kluba sortzearekin batera, oriotarrek pentsatu zuten munduko beste tokietan egiten zuten arraunketa mota hori ere probatu nahi zutela, eta beraiek ere horretan lehiatu, eta horrela, hemengo lehiaketetara mugatu beharrean, mundu mailako txapelketetara ere zabaldu.

Nahiz eta klubean aspalditik landu izan duzuen, beti gelditu izan da traineru arranketaren itzalean, baina azken urteotan aulki mugikorren

arraunketari ere garrantzia handiagoa ematearen aldeko apustua egin duzue elkartean. Zergatik?

Egia da beti ez duela garrantzi bera izan, eta ez dira konparagarriak Eusko Label Liga eta Euskotren Ligare lehiatzen duten traineruek duten indarra, eta modalitate olinpikoak duena. Ez da erraza horiei biei eustea eta elkarrekin uzartzea; beraz, urte batzuetan bati garrantzia handiagoa eman zaio besteari baino. Azken urteetan batez ere gazteek egiten zuten aulki mugikorra, baina aulki finkoari ere garrantzia handia ematen zitzaion, eta duela bi urte erabaki genuen gazte mailetan aulki mugikorra lantzea ia modu eksklusiboan.

Garbi esango dut: apustu bat da, eta batzuk ez daudela ados horrekin. Ikusiko dugu luzera begira emaitza onak ematen dituen edo ez, baina aurreko funtzionamenduetarekin ez ginen ari nahi genituen emaitzak lortzen. Apustu hori egiteko arrazoiak bi dira: batetik, ikusten dugula teknikoki exijentzia maila handiagoa dela eta uste dugula arraunlari hobek lor ditzakegula; eta bestetik, fisikoki egin beharreko lana pixka bat ezberdina izan arren, uste dugula arraunlari batek aulki mugikorretik finkorako trantsizioa nahiko erraz eta azkar egin dezakeela. Horrek aukera ematen digu maila oso altua duen jendearen aurka lehiatzeko gatzetatik. Uste dugu horrek exijentzia maila ere handitu egingo duela, eta gero, traineruan lehiatu nahi badute, senior mailan agian oraingo maila igotzea ere lortuko dute.

Beraz, arraunketa mota bat egitetik besterako jauzia egitea ere posible da; alegia, aulki mugikorren hasi eta gero aulki finkora pasatzea.

Hori da. Gazteen kategorietan markatuago



egon daiteke, eta errazagoa da aulki mugikorrean denboraldi oso bat egitea. Orain traineurren ligak hartu duen pisuarekin zaila da senior mailan jendeak aulki mugikorra bakarrik jorratu nahi izatea. Inguruan baditugu klub batzuk hori lantzen dutenak eta horretara bakarrik mugatzen direnak, baina hemen zaila da. Nahiz eta munduko txapelketetara joan zaitezkeen, nahiz eta Olinpiar Jokoetan parte hartzeko aukera eduki, aulki mugikorrak ez dauka traineruak duen ikusgarritasun hori. Beraz, Orioren kasuan zaila da behin seniorretara helduta aulki mugikorrean bakarrik zentratzen den jendea edukitzea.

Esan bezala, aulki mugikorra da Olinpiar Jokoen egiten den arraunketa mota, eta horregatik, arraunketa olinpikoa ere deitzen zaio. Zer-nola presentzia edo indarra du modalitate horrek nazioartean? Eta Euskal Herrian?

Nazioartean, oso ezaguna da herrialde batzuetan. Ingalaterrako Oxford, Cambridge eta beste zenbait estropada gehienok ezagutzen ditugu edo gutxienez entzun izan ditugu haien inguruko berriak. Herrialde batzuetan arraunerako joera handia dago, eta arraunak izen eta ospea du. Gero, noski, Olinpiar Jokoaren parte hartzeko aukera horrek ere ematen dio beste maila bat, eta urtero egiten diren munduko txapelketek ere. Espainian, berriz, maila badago, baina ez Frantzia, Alemanian edota Italian adinakoa. Uste dut Espainiako lau ontzi sailkatu direla Olinpiar Jokoetarako.

Euskal Herrian, aulki mugikorrentzat urte oso onak egon ziren 90. hamarkadan. Oriok ere urte oso onak izan ditu; munduko txapelkunak badira Orion, eta munduko txapelketetara joan direnak gehiago ere bai. Azken



Ekain Zubizarreta, Orio Arraunketa Elkarteko kidea.

GORKA EIZAGIRRE

"Orietarrek ere munduko beste tokietan egiten zen arraunketa mota hura probatu nahi zuten"

"Apustu bat da, eta batzuk ez daude ados egindako apustuarekin"

"Aukera ematen digu gaztetik maila oso ona duen jendearen aurka lehiatzeko"

"Ontzi horietako bakoitzak kostu handia du, eta antolakuntzan ere lan handia egitea eskatzen du"



OINARRI **PODOLOGIA**
ZENTROA

Aupa Orio!

Arrantzale kalea, 63 behea · ORIO · 943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com · www.podologia-oinarri.com



Sagasti

LEIHOAK



ZERBITZUAK

- Era guztietako leihoen eta itxituren instalazioa: PVC, aluminioa, RPT
- Aluminiozko armairuak • Baranda • Eltxo-sareak • Pertsianak • Konponketak

Eusko Gudaria, 7 · 20810, ORIO · 943-13 00 77
sagasti@sagastileihoak.com



Banaka, binaka, launaka eta zortzinaka ere parte hartu daiteke aulki mugikorreko ontzietan. ANDER BASURTO

urteak ez dira oso onak izan, eta hemendik aurrera, ikusiko dugu; oraingo dinamika aldaketaren emaitzak urte batzuetara ikusiko ditugu, eta ea lortzen dugun berriro jendea mundu mailako edo Europa mailako txapelketetara bidaltzea. Hori bada erronka eta helburuetako bat.

Eta modalitatearen barruan, Oriok zer leku edo presentzia du?

Euskal Herrian, Oriokoa izan zen aulki mugikorreko arraunketa lantzen hasi zen lehenengo kluba. Urte batzuetan nazioarteko estropadak antolatu izan dituzte; aurtengoa XIX. edizioa izan da. Garai batean Oxford-Cambridge-Orio estropadak ere egin zituzten; mundu mailako ospe handiko beste ontzi batzuk ere etorri izan dira... Oriok badu izena eta ospea, bai estatu mailan eta baita nazioartean ere: Portugalen, Frantzian... Orio ezaguna da horientzat. Aurten, adibidez, gertatu zaigu Galiziarra

txapelketa batera joan eta hango estropada komentatzen ari zen esatariak mikrofonotik esatea "ze poza berriz Orio hainbeste gazterekin hemen ikustea, maila honetan lehiatzen". Badago Orio izan denaren historia hori.

Gaur egun, Orioko klubean zenbat jende ari da aulki mugikorreko arraunketan lehiatzen?

Momentu hauetan, gehienbat gazteek egiten dute aulki mugikorra, 11-12 urterekin hasi eta 18 urtera arte; hor sartzen dira arraun eskolan ditugun gazteak. Horiek 90 pertsona inguru dira. Gero badaude zortzi beterano ere lehian dabiltzanak. Seniorrak, gutxi gorabehera, 60 bat izango dira traineruetan, eta horietako batzuk aurten parte hartu dute aulki mugikorreko zortzikoan eta bakarkako skiff-ean, baina, orokorrean, trainerura mugatu dute beraien jarduna. Beraz, denera, 100 bat lagun ibiliko gara aulki mugikorrean.

Arraun elkarte askotan gertatzen den arazoa

BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com
Erreserbak: 943-83 00 05





da gaztetan kirolari asko izaten dituztela, baina urteak betetzen joan ahala, kopuru hori asko murrizten dela. Aulki mugikorrean ere hori gertatzen al da?

Ikusi beharko da hori. Oraindik goiz da esateko modalitate honen alde egin dugun apustuak zer emaitza ekartzen dituen. Oraingoz behintzat, ikusten ari garenak itxaropena izateko motiboak ematen dizkigu. Lehengo urtean, jubenetatik seniorretara pasatzeko kategoria horretan genituen arraunlari gutxi, normala den moduan. Azkenean, berririen bat edo beste beti hasten den arren, ohikoa da gehiago izatea uzten doazenak. Agian urte batzuetan ez dugu jakin jubenetatik seniorretarako lotura hori egiten, edo ez dugu nahikoa landu: salto handia ikusten da, aukera gutxi... Uste dut aulki mugikorrek eman dezakeela aukera jauzi hori modu naturalago eta mailakatuago batean egiteko.

Datozen urteetan ikusi beharko da hala gertatzen den edo ez. Baina inguruko klubekin harremanetan egonda eta dauden egoerak ikusita, poza ematen du infantiletako kategorian gazte pila bat izateak. Gazteak baiditugu, eta uste dut gauzak ondo eginda eta aukerak emanda, lortuko dugula orain infantiletan dugun kopuru horri hein handi batean behintzat eustea jubenetara jauzia egiterakoan, eta hortik seniorretara ere mantentzea.

Gazte horiek guztiak behar bezala entrenatzeko ontziak ere beharko dira, eta horrek ahalegin ekonomiko handia eskatuko du, ezta?

Hala da, bai. Egia esan, hori bada arraunak duen desabantailetakoa bat atletismoarekin edo material aldetik askoz exijentzia gutxiago duten beste kirolekin konparatuta. Txapelketa baterako, adibidez, gure kasuan bi atoi prestatu behar izaten ditugu 70 gazterentzat 22 bat ontzi eraman ahal

**SU
KIA**

TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua | Asteburuetakoa |
Oilaskoak eramateko | Ogitartekoak |
Plater konbinatuak |

Terraza ederra (alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1 · ORIO · 943-89 21 29



ANDER BASURTO

izateko. Batetik, ontzi horietako bakoitzaren kostua handia da, eta beste aldetik, antolakuntza lan handia eskatzen du: gidariak behar dira atoi horiek eramateko; autobusak ere kontratatzen ditugu, 70 gazte ezin baitira gurasoei mesedeak eskatuta mugitu... Egia da alde horretatik ez dela kirol erraz bat, eta ezta merkea ere. Hor elkarteak apustua egin behar du.

Diru pribatua bilatzea da aukeretako bat, baina, kasu honetan, diru publikoaz finantzatzen gara batez ere. Diru laguntza publikoak dira gure diru sarreren zatirik handiena, eta alde horretatik, udalari ere eskerrak eman behar dizkiogu egiten ari den ahaleginagatik. Gu saiatzen gara daukagun horrekin eta ditugun baliabideei –nola giza baliabideak, hala baliabide ekonomikoak– ahal dugun probetxu gehien ateratzen. Aulki mugikorraren aldeko apustua egin dugun honetan, gazte asko etorri zaizkigu, talde oso handiak ditugu, eta hor ontziak behar dira, arraunak, entrenatzaileak...

Nolako da lehiatzeko modua aulki mugikorrean?

Aldatuz joan da azken urteetan. Gipuzkoa

mailan antolatzen dituzten txapelketak dira gehienbat. Liga bat antolatzen dute. Liga horrek estropada batzuk izaten ditu urte hasieran, distantzia luzeko edo jaitsiera bezala ere ezagutzen ditugunak. Horieta gehienak Hondarribian egiten dira, eta ibaian egiten diren sei kilometroko jaitsierak izaten dira. Gero, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak egiten dira.

Beranduago hasten da distantzia motzeko estropaden denboraldia; garai batean hori bakarrik zegoen. Denboraldi horretan, asteburu batean Gipuzkoako Txapelketa izaten da; hurrengoan Euskadikoa; bi astera kadeteek, jubentilek eta seniorrek Espainiako txapelketa izaten dute; eta beste bi astera, infantilek eta beteranoek. Denboraldia, beraz, uda arte izaten da. Gero, selekziara sartzeko txartela lortzen dutenek selekzioarekin pasatzen dituzte aste batzuk, normalean Sevillan, eta aurten, adibidez, Gaztetasunaren Kopa deitzen diotena Txekiar Errepublikan izango da abuztuan. Badut gure gazteren bat joateko esperantza, baina ikusiko dugu... ■




Jarraitu Orioko taldea webgunean

XS

arkitektura

15 urte ideiak eraikitzen



EUSKOLABEL

EGUNA

EKAINAK, 29

EKAINAK, 30

UZTAILAK, 6

UZTAILAK, 7

UZTAILAK, 13

UZTAILAK, 14

UZTAILAK, 20

UZTAILAK, 21

UZTAILAK, 27

UZTAILAK, 28

ABUZTUAK, 3

ABUZTUAK, 4

ABUZTUAK, 10

ABUZTUAK, 11

ABUZTUAK, 17

ABUZTUAK, 18

ABUZTUAK, 24

ABUZTUAK, 25

IRAILAK, 15

IRAILAK, 15

ESTROPADA

A Coruña

Bueu

Donostia

Zierbena

Bilbo

Sestao

Ribeira

Boiro

Getxo

Lekeitio

Castro Urdiales

Orio

Hondarribia

Pasaia

Zarautz

Zarautz

Ondarroa

Getaria

Play off 2, Portugalete

Play off 2, Portugalete



EGIN ZURE ERRESERBA
625 70 08 98
 ZENBAKIRA DEITUTA


ALT XERRI

Olaskoegi auzoa, 36 · AIA-ORIO · 625 70 08 98

*Aupa
 Orio!*

EUSKOTREN

EGUNA

EKAINAK, 29

EKAINAK, 30

UZTAILAK, 6

UZTAILAK, 7

UZTAILAK, 13

UZTAILAK, 14

UZTAILAK, 20

UZTAILAK, 21

UZTAILAK, 27

UZTAILAK, 28

ABUZTUAK, 3

ABUZTUAK, 4

ABUZTUAK, 10

ABUZTUAK, 11

ABUZTUAK, 17

ABUZTUAK, 18

IRAILAK, 15

IRAILAK, 15

ESTROPADA

A Coruña

Bueu

Donostia

Zierbena

Bilbo

Sestao

Ribeira

Boiro

Getxo

Lekeitio

Castro Urdiales

Orio

Hondarribia

Pasaia

Zarautz

Zarautz

Play off 2, Portugalete

Play off 2, Portugalete

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki,
odolki, txekorra, txorizo,
kroketak...

HARATEGIA
**PATXI
OLIDEN**
URDAITEGIA

Eusko Gudari 25, ORIO · 943-83 00 10

EGUNA

EKAINAK, 23

EKAINAK, 29

EKAINAK, 30

UZTAILAK, 6

UZTAILAK, 7

UZTAILAK, 13

UZTAILAK, 20

UZTAILAK, 27

UZTAILAK, 28

ABUZTUAK, 3

ABUZTUAK, 11

ABUZTUAK, 15

ABUZTUAK, 17

ABUZTUAK, 18

ABUZTUAK, 24

ABUZTUAK, 25

ESTROPADA

San Juan

Lapurdi

Zumaia

Camargo

Portugalete

Kaiku

Pedreña

Santurtzi

Gorliz

Orio

Hondarribia

Arkote

Zarautz

Deustu

Play off 1, Colindres

Play off 2, Castro

Oinak



PODOLOGIA ZENTROA

Azterketa biomekanikoak • Oin-zola
 pertsonalizatuak • Silikonazko ortesiak neurrira
 • Azkazal eta gogorguneak
 • Papilomak • Oin diabetikoen prebentzioa

Urdaneta kalea 8, ZARAUTZ
 Hitzordua 943-53 27 24

Baraka

taberna

Aita Lertxundi 23 · ORIO
943-54 37 24

Gosariak 07:00etatik aurrera
Pintxoak, ogitartekoak, entsaladak,
hanburesak, eguneko platerak...
2 terraza ditugu. Gaueko giroa ere bai.



AUPA ORIO!



Kirol guztiak ikusgai (6 pantaila)

LALIGA



UFC
GYM

EGUNA

EKAINAK, 22

EKAINAK, 23

EKAINAK, 29

EKAINAK, 30

UZTAILAK, 6

UZTAILAK, 7

UZTAILAK, 13

UZTAILAK, 20

UZTAILAK, 28

ABUZTUAK, 3

ABUZTUAK, 10

ABUZTUAK, 15

ABUZTUAK, 17

ABUZTUAK, 18

ABUZTUAK, 24

ABUZTUAK, 25

ESTROPADA

Astillero

San Juan

Lapurdi

Zumaia

Camargo

Portugalete

Kaiku

Pedreña

Lutxana

Hernani (Orio)

Ondarroa

Arkote

Zarautz

Deustu

Play off 1, Colindres

Play off 2, Castro

 **koloore**

www.koloore.com | info@koloore.com | 656 77 60 40






Aupa Telmo Deun!



- Okin, Telmo Deunen gizonezkoen eta emakumezkoen
traineruen babesle ofiziala -

www.okin.es



LEIHOAK.com

eta toldoak



www.leihoak.com

943-00 22 75 - 619 43 20 79

leihoak@leihoak.com

Leihoen eta toldoen erakusketa

Zelai Ondo, 23 | ZARAUTZ